

Zer desberdintasun dituzte lehiak eta kontsumoak?

- ▶ **Lehia:** operadore ekonomikoek merkatuan duten portaerari erreparatzen dio, merkatuaren ohiko funtzionamendu ekonomikoaren aurkako jokabideak saihesteko.
- ▶ **Kontsumoa:** kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa du helburu, ondasunak eta zerbitzuak erosten dituztenean (aukeratzeko askatasuna, erreklamatzeko eskubidea, prezioak erakusgai egotea, kontratuetan atzera egiteko eskubidea, etab.).
- ▶ **Biek, Kontsumoa + Lehia, kontsumitzaile eta erabiltzaileen ongizatea** areagotzen dute.

«Lehiak pizgarriak ematen dizkie enpresei kalitate-prezio erlazio hobea eskaintzeko, eta, beraz, onuragarria da pertsona guztientzat»

Zergatik egiten die mesede lehiak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei

- ▶ **Debekatutako jokabideen kontra egiten duelako**, hala nola:
 - ▶ **lehiaren aurkako akordioak:** enpresak ados jartzen dira gauza bera kobratzeko, produktuen prezioak igotzeko edo bezeroak edo eremu geografikoak banatzeko.
 - ▶ **nagusitasunezko egoeraren abusua:** merkatu-botere handia duten enpresek (eskuarki, merkatu-kuota handiak) egoera horretaz abusatzen dute. Besteak beste, hauek egin ohi dituzte: kostuen azpitik saltzea, gehiegizko prezioak ezartzea, salmenta paketatutak egitea, etab.
 - ▶ **egintza desleialen bidez lehia faltsutzea:** enpresek egindako fede onaren aurkako jokabideak dira; hala nola, kontsumitzaileari iruzur egiteko edo nahasteko. Horiek merkatuaren egiturari eragiten diote.
- ▶ Merkatuetan **lehia dagoenean**, hau lortzen delako:
 - ▶ prezio baxuagoak
 - ▶ kalitate handiagoa
 - ▶ aukera handiagoa
 - ▶ saldu osteko zerbitzu hobeak
 - ▶ berrikuntza handiagoa

▶ Lehiak **GJHak lortzen laguntzen duelako**, bereziki:



▶ **Kolektibo ahulenei mesede egiten die** bereziki: pobrezia murriztea, diru-sarrerara txikiak dituzten familien oinarriko produktu eta zerbitzuak (energia, garraioa edo etxebizitza, adibidez) eskuratzeko eta enplegua lortzeko aukerak handituz.

Kontsumitzaile eta erabiltzaile batek salatu al dezake lehiaren aurkako jokabide bat?

Edozein pertsona fisikok edo juridikok salatu edo informazioa eman diezaiokie LEA/AVCri lehiaren aurkako jokabideei buruz, bide hauen bidez:

▶ **Salaketa** formala, egoitza elektronikoaren bidez:
<https://www.competencia.euskadi.eus/lea/salaketak/webavc00-container/eu/>



▶ **Kontsultak eta komunikazioak:**
<https://www.competencia.euskadi.eus/lea/kontsultak-eta-komunikazioak/webavc00-container/eu/>



▶ **Lankidetzat postontzi anonimoa:** ez da identifikatu behar
<https://www.competencia.euskadi.eus/lankidetzat-postontzi-anonimoa/webavc00-container/eu/>



▶ **Telefonoa:** 944 032 800

▶ Informazio gehiago webgunean eskuragarri:
<https://www.competencia.euskadi.eus/webavc00-home/eu/>

LEHIA ETA KONTSUMOA

